

HITZARMENA

Oñatiko Udalaren eta "ELTZIA, herri-sormenaren etxea elkarte soziokulturala" elkartearen arteko lankidetza azpi-hitzarmena, elkartearen alde 2024 ekitaldirako dirulaguntza zuzen eta izenduna bideratzeko

BILDURIK

Alde batetik, Bestetik, Oñatiko Udala – helbidea: Foruen Enparantza 1, 20560 Oñati; IFZ: P2006300D –, ekitaldi honetan Izaro Elorza Arregi ordezkaturia – NAN: 15396342G -, Alkatea den heinean.

Bestetik, Josu Zubia Marculeta – NAN: 72848797T -, ELTZIA, herri-sormenaren etxea elkarte soziokulturala" elkartearen izenean, G75202861 IFZ zenbakiduna.

Bi aldeek elkarri aitortzen dioten Oñatiko Udalaren eta "ELTZIA, herri-sormenaren etxea elkarte soziokulturala" elkartearen arteko lankidetza hitzarmenaren baitako dirulaguntza zuzena bideratzeko azpi-hitzarmen hau sinatzeko behar den gaitasuna.

AZALTZEN DUTE

2023 apirilaren 27ko osoko bilkuran onartu zen Oñatiko Udalaren eta "Eltzia, herri-sormenaren etxea elkarte soziokulturala" elkartearen arteko lankidetza hitzarmena besta lau urterako luzatzea.

Hitzarmen horrek dirulaguntza zuzen eta izenduna bideratzen du. Dirulaguntzaren iraupena lankidetza hitzarmenaren bestekoa izango da, eta zenbatekoa udal aurrekontuak ahalbideratzen dutenaren arabera zehaztuko du udalak urtetik urtera.

KLAUSULAK

Lehenengoa.- Xedea

1.- Hitzarmen honen xedea da Oñatiko Udalaren eta "ELTZIA, herri-sormenaren etxea elkarte soziokulturala" elkartearen arteko lankidetza hitzarmenaren baitako 2024 ekitaldiko dirulaguntza zuzen eta izenduna bideratzea.

2.- Hitzarmen honen iraupena 2024 ekitaldirako da.

Bigarrena.- Diruz lagundu daitezkeen kontzeptuak eta gastuak

1.- Oñatiko Udalaren eta "ELTZIA, herri-sormenaren etxea elkarte soziokulturala" elkartearen arteko lankidetzaz hitzarmenean jasotakoaren arabera, honakoak dira diruz lagundu ahalko diren kontzeptuak:

- Udalaren eskuduntza diren ohiko mantentze-lanetan sartzen ez diren mantenu edo hobekuntza lanetarako materiala erostea edo alokatzea.
- Erabilera komunerako erositako materiala.
- ELTZIAko elkarte eta kolektiboentzat modu komunitarioan bideratutako hezkuntza edo formaziotik eratorritako gastuak.
- ELTZIAko elkarte eta kolektiboen arteko elkar-ezagutza, bizikidetasuna eta orokorrean komunitate izaera indartzera bideratutako ekimenen gastuak.
- Beste batzuk: aurreko lerrokatetan aipatu gabeko beste edozein gastu finantzagarria izango da, betiere udalaren oniritzia badu eta hitzarmen honen helburu eta baldintzekin bat egiten badu.

Ez dira finantzagarriak izango:

- Ez dira finantzatzeko Eltzia-ko partaideentzat maila komunitarioan onurarik ez dakarten gastuak.
- Egindako gastuari dagokion fakturarik ez badago, ez da finantzagarria izango. Ildo horretan, aipatu behar da Eltzia-ko partaideen eskulana, auzolana esateko, ez dela finantzagarria izango.

2.- Zehazki, bi gastu lerro bereizten dira hitzarmen honetarako:

- "ALERROA": egitasmoari loturiko zeharkako garbiketa, mantenimendu edo zeharkako gastuak:
 - Eraikinari begirako betebeharreierantzuteko garbiketa materiala, mantenimendu lanetarako material, gune komunetarako materiala, ekipamendu informatikoak edo bestelako material baliokidea.
 - Aseguru gastuak.
 - Halaber, finantza gastuak, aholkularitza juridikoko edo finantzarioko, baldin eta diruz lagundutako jarduerarekin zuzenean lotuta badaude eta jarduera behar

bezala prestatzeko edo gauzatzeko ezinbestekoak badira, eta ez badira jardunbide desegokien edo legezko ez-betetzeeen ondorio.

- “B LERROA”: “ELTZIA, herri-sormenaren etxea elkarte soziokulturala” elkarteak 2024ko urtarrilaren 10ean dirulaguntza eskaerarekin batera aurkeztutako 2024ko proiektuko eta ekintza planeko jarduerak, eta horiei loturiko honako gastuak:

- Egitasmoaren dinamizaziorako, koordinaziorako eta kudeaketarako pertsonal gastuak.
- Komunikazio arduradunaren gastuak.
- Topa-guneko ekitaldiak.
- Sareak sendotzeko eta egitasmoa ezagutarazteko Eltzia Eguna.
- Komunikazio ekintzak.

3.- Diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartuko dira dirulaguntzaren izaerari zalantzarik gabe erantzuten diotenak, baldin eta behar-beharrezkoak badira eta hitzarmen honetan ezarritako epean egiten badira (2024 urteko ekitaldiaren amaiera). Hitzarmen honetan aurreikusitako ondorioetarako, egindako gastutzat hartuko da justifikazio epea amaitu aurretik egiaz ordaindu dena.

Hirugarrena.- Finantzaketa

1.- Oñatiko Udalak “ELTZIA, herri-sormenaren etxea elkarte soziokulturala” elkarteari egingo dion diru ekarpena 1 0320.481.924.00.99 2024 (5215) diru atalaren eta bere lotespen-mailaren kontura egingo da, eta gehienez ere hogeitahamalau mila bederatzehun eta berrogeita hamar euro (34.950,00 €), bigarren klausulan ezarritako lerroen arabera banaketarekin bat etorriz.

Jarduerak edo gastuak finantzatuko dira honako taula honetan zehaztutako lerroen arabera banakatuta:

A lerroa Egitasmoari loturiko zeharkako garbiketa, mantenimendu edo zeharkako gastua	Gehienez ere 4.500,00 €
B lerroa 2024ko proiektuko eta horren baitako ekintza planeko jarduerak, eta horiei loturiko honako gastuak	Gehienez ere 30.450,00 €

2.- Finantzatu beharreko zenbatekoa zuzeneko dirulaguntza bidez emango da, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 49.7 artikulua eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 26ko 38/2003 Lege Orokorraren 22.2.c) artikulua babesean.

3.- Hitzarmena sinatu baino lehen, onuradunak dokumentazio hau aurkeztu beharko du:

- Erakunde eskatzailearen banku-kontuaren titularitatearen frogagiria, eskaera egin duen erakundearen identitatearekin bat etorri behar dena.
- Onuraduna DLOren 13.2 artikulua aurreikusten dituen debekuetan ez dagoela sartua dioen erantzukizuneko aitortpena edo deklarazioa.
- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beteta edukitzeari buruzko ziurtagiriak.

4.- Dirulaguntza hau berezia denez eta ekintza planaren bideragarritasuna bermatzeko, ordainketa aurreratua ezartzen da, kontuan hartuta elkarteak eskura dituzten baliabide ekonomikoen izaera eta muga, abenduaren 27ko 12/2007 Legearen 36.1 artikuluaekin bat etorriz.

5.- Ordainketa aurreratua bi zatitan egingo da, era honetara:

- Dirulaguntzaren %50 hitzarmena sinatzen den momentuan, 1.º aurrerakin moduan, diruz lagundutako ekintzak aurrera eraman ahal izateko beharrezko finantzaketa gisa, udal aurrekontuko 1 0320.481.924.00.99 2024 (5215) diru atalaren eta bere lotespen mailaren kargura.

- Dirulaguntzaren gainontzekoa, gehienez ere %50a osatu arte, aurreikusitako gainontzeko ekintzak aurrera eraman ahal izateko beharrezko finantzaketa gisa, udal aurrekontuko 1 0320.481.924.00.99 2024 (5215) diru atalaren eta bere lotespen mailaren kargura; eta beti ere, 2. ordainketaren eskabidearekin batera ekintza planaren aurrerapen maila eta behin betiko kronograma jasotzen dituen erantzukizunpeko adierazpena aurkeztea ezinbestekoa izango da. Eskaera, ekainaren 15etik 30era bitartean egin beharko dio elkarteak Udalari, egoitza elektronikoaren bidez.

Laugarrena.- Dirulaguntzaren zertarakoa aldatzea

1.- Oñatiko Udalaren esanbidezko baimena eskatu beharko da hasieran aurreikusitakoaren aldean funtsezko aldaketak egin nahi badira.

2.- Dirulaguntzaren zertarako berria Garapen Komunitario eta Partaidetzako arloak aztertuko du, proposamena egin dezan eta berariazko baimena Tokiko Gobernu Batzarraren ebazpenaren bidez formalizatuko da.

Bosgarrena.- Helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekiko bateragarritasuna

1.- Hitzarmen honen esparruan jasotako ekarpen ekonomikoa bateragarria izango da erakunde honek edo beste erakunde publiko edo pribatu batzuek helburu berarekin ematen dituztenekin, betiere hitzarmenaren xede diren jardueren kostua gain-finantzatzen ez bada.

2.- Hitzarmen honen babesean emandako ekarpen ekonomikoen zenbatekoak, helburu bera duten beste diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera, ezin izango du inola ere gainditu garatu beharreko jardueraren kostua, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 19.3 artikuluan adierazten den moduan. Kasu horretan, emandako laguntzari soberakina kenduko zaio edo dagokion zatia itzuli.

Seigarrena.- Koordinazio eta jarraipenerako mahai teknikoa

1.- Koordinazio eta jarraipenerako mahaia teknikoa sortuko da, alderdi sinatzaileen ordezkari hauek osatua:

a) Oñatiko Udaletik:

a.1.) Partaidetza eta Garapen Komunitario arloko teknikariak

a.2.) Kultur programazioan ardura duten arloetako teknikariak, beharraren arabera

b) ELIZIA, herri-sormenaren etxea elkarte soziokulturala elkartetik:

b.1.) Elkarteko ordezkaria(k)

b.2.) Beharraren arabera, egitasmoaren sostengurako izendatutako dinamizatzailea eta komunikazio arduraduna

Mahai honek beharrezkotzat jotzen dituen pertsonak gonbidatu ahal izango ditu bileretara, aztertzen diren gaiei buruzko aholkularitza eman diezaioten.

2.- Mahai gutxienez hiru alditan batuko da, egitasmoaren abiatzean, bigarren ordainketa eskaera baino lehen (ekaina hasieran) eta bukaeran (abenduan); baita ere bi aldetako batek eskatuta premiek hala eskatzen dutenean.

3.- Mahaiak honako eskumen hauek izango ditu:

- a) Egitasmora bideratutako ekintzen gaineko jarraipen orokorra egitea, eta era berean, egiaztatzea lortu nahi diren helburuetara egokitzen direla eta zer-nolako bilakaera ari diren izaten ebaluatzea.
- b) Haien ustez hitzarmena hobeto antolatzeke eta funtzionatzeko egokienak diren neurriak hartzea.
- c) Hitzarmen hau interpretatzean eta betetzean sortzen diren arazoak ebaztea.
- d) Hitzarmena gauzatzeko beharrezkoak diren jarduerak koordinatzea.
- e) Ekintza eta jarduerak gauzatzeko, jarraipena egiteko eta ebaluatzeke beharrezkoak diren dokumentu teknikoak eta txostenak zehaztea.

4.- Erabakiak ordezkaturako alderdiak ados jarrita hartuko dira.

Zazpigarrena.- Sozializazioa eta zabalkundea

1.- Egitasmoaren asmoak eta loturiko ekintzak nabarmentzeko eta ikusarazteko, "ELTZIA, herri sormenaren etxea elkarte soziokulturala" elkarteak jarduketa hauek egingo ditu:

- a) ELTZIAko talde eta elkarteei dagokionean, egitasmoaren sozializazioa, bide ezberdinetatik.
- b) Herri mailan:
 - b.1) Kontzejupetik aldizkarian, Oñati irratian eta bere sare sozialetan egitasmoa hedatzeko.
 - b.2) Aurkezipena komunikabideei.

Sozializazio eta zabalkundeari dagozkion jarduketa zein euskarri guztietan, dirulaguntza honi bidez zati batean edo osorik finantzaturakoetan, jasoko da Oñatiko Udalaren irudi instituzionala.

Zortzigarrena.- Dirulaguntza justifikatzeko epea eta modua

1.- Dirulaguntza ematerakoan ezarritako baldintzak bete direla eta diruz lagundutako jarduerak benetan egin direla agiri bidez egiaztatu behar da, kontu zurigarria aurkeztuz.

2.- Ekitaldia amaitutakoan (2024ko abenduaren 31), hitzartutako jarduerak behar bezala gauzatu direla justifikatu beharko dira, ondorengo dokumentuen bidez:

a) Hitzarmen honen xede diren ekintzei dagokienez, proposatutako helburua lortzeko lortutako betetze-maila jasotzen duen azalpen-memoria. Esku hartze bakoitzari buruzko deskribapena eta balorazioa.

b) Egitasmoari dagozkion gastuekiko aurreikusitakoaren eta justifikazio unean benetan gastatutakoaren arteko erlazioa adierazi beharko da, gertatutako desbideratzeak adierazteko.

c) Atal finantzarioa, honako hauek jasoko dituen:

– Gastuen zerrenda sailkatua eta ordenatua, honako hauek adierazita: hartzekoduna, zenbatekoa, jaulkipen-data eta, hala badagokio, ordainketa-data.

– Zerrenda horri erantsiko zaizkio fakturak edo merkataritzako trafiko juridikoan froga-balio baliokidea duten dokumentuak, edo administrazio-eraginkortasuna dutenak, eta, hala badagokio, ordainketa egiaztatzen duten agiriak.

Gastuak egiaztatzeko oinarritzko dokumentazioa faktura da. Aurkeztutako fakturak onargarriak diren ala ez zehazteko 1619/ 2012 Errege Dekretuak, azaroaren 30ekoak, fakturazio-betebeharrak arautzeko erregelamendua onartzen duenak, 6.1. artikuluan fakturen edukiei buruz dioena jarraitu beharko da. Fakturak edo pareko agiriei zenbakiak izango dituzte, zerrendan adierazitako zenbakiei jarraikiz.

- Pertsonal gastuen kasuen, lan-kontratua (lan orduak, dedikazioa eta funtzioak) eta diruz lagundutako epealdiko kontratuaren nominak.

d) Erantzukizuneko aitorpena, diruz lagundutako jarduketari dagozkien gastuak egiazkoak direla eta aurkeztutako fakturak ez direla erabili eta ez direla erabiliko beste dirulaguntza batzuk justifikatzeko adieraziz.

e) Urteko balantzeko ekonomikoa, elkartearen gastuak eta sarrerak (besteak beste, bazkideen kuotak, doantzak, babesletzak, ekintzei loturiko salmentak edota beste erakunde batzuetako dirulaguntzak jasotzen dituen).

3.- Hedapen egokia justifikatzeko, erakunde onuradunak justifikazioari erantsiko dio hitzarmen honen jarduketekin lotuta sortzen diren euskarrien ale bat, edo, bestela, kopia bat euskarri fisiko edo magnetikoan, haren izaeraren edo bataren edo bestearen egokitasun handiagoaren edo txikiagoaren arabera.

Bederatzigarrena.- Ondorioak

1.- Hitzarmen hau izenpetzean, sinatzen duenak deklaritzen du bertan ezarritako betekizun guztiak bete egiten dituela eta hemen jasotako baldintza eta betebeharrak guztiak goitik behera onartzen dituela.

Aldi berean, izenpetzen duenak adierazten du Oñatiko Udalarari eman dizkion Datu Pertsonalak bere onespenez eman dizkiola eta datu horiek Oñatiko Udalak behar bezala baimenduta dituen fitxategietan sartzeko eta tratamendu automatizatua emateko baietza ematen duela.

2.- Sinatzen duenak deklaratzeko du, hitzarmen hau izenpetzeko eman duen informazioa egiazkoa dela, ez duela isilean ezer gorde edo aldatu.

3.- Hitzarmena sinatu duenak baimena ematen dio Oñatiko Udalarari:

a) Izaera pertsonaleko datu horiek udal kudeaketarako bakarrik erabiltzeko; hala ere, beste Administrazio Publiko batzuei edo beste inori laga edo jakinarazi ahal izango zaizkie datuok 3/2018 Lege Organikoan, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa, aurreikusitako kasuetan.

b) Hitzarmen honen xede den dirulaguntza zuzena kudeatzeko garrantzizkoa den informazio guztia eskuratu ahal izateko, udal sail eta atal guztietan eta beste administrazio publiko batzuen fitxategietan beharrezkoak diren kontsulta guztiak egiteko.

4.- Azkenik, hitzarmen hau izenpetzen duenak deklaratzeko du berak eman dituen datuak eskuratzeko aukeraren inguruko argibide guztiak eman zaizkiola eta, hala bada, esandako Lege horrek ezarritako moduan, datu horiek zuzentzeko, datuen aurka egiteko edo ezabatzeko eskabidea egiterik ere baduela, Oñatiko Udalean datuen tratamenduari buruzko arduradunarengana zuzenduta: Oñatiko Udala, Foruen Enparantza, 1; 20.560, Oñati (Gipuzkoa). Eskabidea egiteko datu hauek eman behar ditu: izen-abizenak, helbidea jakinarazpenak bidaltzeko, eskaera zehatza, data, interesdunaren sinadura eta fitxategiaren izena.

5.- Hitzarmen honetatik sor daitezkeen auzigaiak, hitzarmenak berak izaera juridiko-administratiboa duenez, administrazioarekiko auzietarako jurisdikzio-ordenaren menpe geratuko dira.

Eta alde biak hitzarmen honetan jasotakoa onartzen dugula jakinarazteko, hitzarmen hau sinatzen dugu eta honen ale bi izenpetu behean adierazitako egun eta lekuan.

Oñatin, sinadura digitalean ageri den datan.



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas	
Titulua / Título:	Eltzia 2024 dirulaguntza zuzena - hitzarmena
CSV/EKS:	SINA9817dcfd-07dd-4ff1-a702-19ffc8a52778